

Komuna ondo erabiltzeko kanpaina

Euskal Herriko Ur partzuergoek (besteak beste AMVISAK) eta URA-Uraren Euskal Agentziak, Ingurumenaren Industrien Kluster Elkartarekin (ACLIMA) lankidetzan, Kutsatzailen Emergenteei buruzko koordinazio mahaia abian jarri dute. Haren helburua **komuneko paper zati bustiak botatzeak eta komuna txarto erabiltzeak saneamendu sistemari eragindako buxaduren arazoa konpontzea da.**

Kutsadurari dagokionez, saneamendu publikoetan dagoen arazo nagusia industriako isurietatik datorrena oraindik izan arren, gero eta eragile kutsatzaile gehiago eta kopuru handiagoetan azaltzen dira etxeko kontsumoari eta praktikei lotuta. EAeko saneamendu sareen eta araztegien kudeatzaileek arazoa handitzen ari dela ikusi dute. Izan ere etxeetan produktu jakin batzuk txarto erabiltzen dira eta, ondorioz, komunen bidez hiriko estolderiara heltzen direnean arazo larriak sortzen dituzte.

Gaur egun kalte gehien sortzen duen kutsatzailea garbiketa pertsonalerako paperzapi bustiak dira, hodietan eta kolektoreetan buxadurak eragiteaz gain, ur zikinak arazteko prozesuak asko zailtzen dituztelako. **Modu teknikoan jorratzeko arazo zaila eta AMVISAK gero eta sarriagotan aurre egin behar dio, dagoeneko gainkostu handiak sorrarazi dituelarik.**

Baina etxeko isurietatik datorren kutsaduraren arazoa komuneko paperzapi bustiak haragokoa da. Ohiko arazketaren bidez tratamendu zaila duten produktu ugari daude eta komunean edo hodietan amaitzen dute: olioak, lixiba, amoniakoa, farmakoak, kosmetikoak, konpresak, tanpoiak, drogak, pinturak eta disolbatzaileak, xaboiak eta garbikariak. Uraren kalitatean eragina izaten du, araztegietan gainkargak sorrarazten du, lohi gehiago ekartzen du, kontsumo energetikoa handitzen du eta, aurrekoaren ondorioz, arazketaren kostua handiagoa da.

Hori dela eta, besteak beste, mahai honek **komunontzia behar bezala erabiltzeari buruz herritarrek kontzientziazteko eta informatzeko kanpaina** bati ekingo dio. **Azaroaren 19an** hasiko da, Komunontziaren Munduko Egunaren karietara, herritarrek ahal beste laguntzea eta arazoaren konponbidean parte hartzea bilatuta.

OCUren datuen arabera, 2014an soilik, Espainian 43 milioi pakete komuneko paperzapi busti saldu ziren. Ura eta Saneamendua Hornitzeko Espainiako Elkartek kalkulaturakoaren arabera, Vitoria-Gasteiz bezalako 300.000 biztanle inguruko tamaina erdiko hiri batean, **eguneko hondakin horien 8 tona** jasotzen dira, hau da, **urteko eta pertsonako 10 kilo ozta-ozta.**

AMVISA siriar errefuxiatuen alde



AMVISAK 60.000 € bideratuko ditu "Jordania, siriar errefuxiatuak" izeneko esku-hartzerako. Ekimen hori UNICEFek aurkeztu dio Larrialdietarako Arabako Funtsari eta abian jarri dute "Mediterraneoko krisia" delakoaren harira eta, zehatz-mehatz, Siriako gatazkak sortutako egoera larria dela eta. Proposamenaren xedea Jordaniako siriar errefuxiatuentzako uraren banaketa sustatzea da. Horretarako, tanga kamioiak erabiliko dituzte eta saneamendurako larrialdiko kitak emango zaizkie bertan daudenei. Gainera, egoera txarreko uraren bidez kutsatu daitezkeen gaixotasunen prebentzioari buruzko prestakuntzako eta sentsibilizatorako jarduerak egingo dira.

Halaber, 61.000 euroko ekarpena onartu dute Euskal Fondoak kudeatutako proiekturako. Horrela izendatu dute ekimena: "El Corozo, La Ceibita eta El Irayol izeneko nekazaritza auzoetan Edateko Ura Sartzea". Horren arabera, ura banatzeko sistema bat sortuko da, 360 ur hartunez osatua, gaur egun 178 familia bizi diren El Salvadorreko eskualde honetan. Alkatzaren ikuskaritzapean, Uraren Auzoko Batzar batek kontagailuak ipintzea eta sistema kudeatzea aurreikusita dago.



IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN? Posta elektronikoz egin dezakezu. Haxe da helbidea: info@amvisa-futura.org